



Zintzo mintzo

Hezkuntza. Ikastetxeko zuzendaria bazina, zer aldatuko zenuke?



Iratxe Saitua
4 urte. Amaiur

Zuzendaria izango banintz, ikastetxean beti jostetan ari-tuko ginatke eta lan gutxia-go egingo genuke.



Ane Goienetxe
3 urte. Amaiur

Eskolako zuzendaria izango banintz, eskolara plastilina gehiago ekartzeko eskatuko nuke.



Josu Valentzia
6 urte. Lizarra

Ikastetxeko zuzendaria ba-nintz, gure gelako megafo-nia konpontzeko teknikariari deituko nioke.



Iñigo Goienetxe
5 urte. Amaiur

Ikastetxeko zuzendaria ba-nintz, lehenik eta behin, tre-na eskola ondoan paratzeko aginduko nuke.

Zure txokoa




Andoain^{go}

Shua Lasak marrazki eder hau bidali digu XINGOLAN argitaratzeko. Shuak 5 urte ditu.

Asko gustatu zaigu marrazkia, Shua!

Julen

Mungiak XINGOLARako egindako marrazkia da ondorengo hau. Julen Donostian bizi da eta 6 urte ditu. Marrazki polita da benetan. **Mila esker!**



agurrak

Zorionak, Maddi!,
ekainaren 14a zure biga-
rren urtebetetze eguna
delako. Ondo pasatu!!
Izeba Maider eta Igor.


Arduraduna: Nagore Etxeberria Pikabea

Egoitza nagusia EGUNKARIA Gudarien etorbidea z/g 20140 Andoain Tlf 943 30 02 22

NAIROBITARRArekin
Amazonia txikira
abenturako asteburu zoragarria

Nola?

aldizkari lehiaketa



Zugarramurdiko aldizkaria

Zugarramurdiko ikasleen aldizkaria heldu zaigu. Bertsolaritzari buruz ari dira, eta Beñat Zozaia eta Nerea Altzurirekin izandako solasaldia irakur daiteke.

Aldizkaririk onenaren egileak Arcachonerako bidean

Xingolako

aldizkari lehiaketan
kontuan hartuko diren
irizpideak

- 1 Ikasleek ikasturte honetan egingo izan behar dute aldizkaria.
- 2 Aldizkariak euskara hutsean egingo dira.
- 3 Formatua ere kontuan hartuko da.
- 4 Diseinuari eta edukiari garrantzi handia emango zaie.
 - Logotipoa • Testua zutabeetan azaltzea • Testua eta argazkiak uztartzea • Atalak bereiztea • Kazetaritza generoak lantzea (albisteak, erreportaiak, elkarrizketak, iritziak...).
- 5 Originaltasuna, txukuntasuna.

Saria

Arcachonerako bidaia 20 lagunentzat
Oharra: adin muga, 12 urte arte